

**EMILE LARRE JAUNAREN  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Aiherra — 1975-IX-28



## AIHERRAKO LAURENT CHALLET JAUN AUZAPEZAK EGIN MINTZALDIA

AGUR Eskualzaindiko membro eta langile guziak!

Agur Herria kasetaren idazlariak egun hunat etorri zarezenak!

Agur ere Aihertar eta beste guziak eta deneri bihotzaren erditik ongi etorri!

Segur ohore zauku eta atsegin dugu egun Aiherran zuen errezebitzea. Ohore zauku Eskualzaindia edo Akademia Eskualduna deitu batasunean membro izaiteko hautatu baituzue guk hemen hain maite eta estimatzen dugun Emile Larre gure Jaun Erretora.

Badakigu ez duzuela hautu hori nola-nahi egiten eta segur egungo Eskualzaile berri hunek nasaiki merezitua du izendatze hori. Zer lanak ez ditu egiten Eskuararendako dela mintzaira, kasetak, kantu, pilota eta gainerateko. Herrian berean nola ez gaitu moldatzen kantuetan! Alta bi sosen pazientzia behar du, gu bezalakoekin! Baderauka orai gauden Gaztetxea deitu trinket hunek Jaun Erretoraren beharra bizi egoiteko. Atsegin edo plazer dugu hure Eskualzaile berriak nahi ukan baitu Eskualzaindian sartze hori hemen izan zadin bere Parropian, bere artaldearen erdian. Bihotzaren bete betetik gure goresmenak eta eskerrak Jaun Erretora!

Duela zombait mende, naizen laborari xume hunen orde Belzunce Jauregiko nagusiak egiten zautzuen ongi etorri hau. Murru peza batzu ederrak eta azkarrak gelditzen dira jauregi hortarik hemendik hurbil hurbila pentze patar baten kaskoan. Zorigaitzez ez dakigu gauza haundirik hor bizi izan direnen ganean. Diote duela bortz mende mila lau egun berrogoita hamarreko Maiatzaren hemezortzian jauregi hortan finkatu zituztela Aiherrako Akordioak, zointan gure auzo Lapurdik onhartzen baitzuen Frantziako erregeren nagusitasuna, hiru mendez Anglesen mendeko egon ondoan. Horrenगतिक Aiherran gure arbasoak Nafartar gelditu ziren. Geroztik izen hortako Monseigneur de Belzunce deitu Apezpiku aipatu bat izan da Marseilla hirian. Eta orai zer gelditzen zauku denbora heietarik? Gelditzen zauku oraino mintzaira Eskuara.

Bai, Belzunce jauregiko murru zahar horiek bezain azkar dago Eskuara gure herrian. Bai zahar, bai gazteak denek Eskuara dugu mintzo. Gure familietan, Herriko-Etxeko ala gainerateko biltzarretan beti eskuaraz ari gira. Elizan, otoitz ala kantu dudarik ez da: eskuaraz. Nahiz nola izan ote ditake bertzalde holako erretor batekin, bai osoki apeza eta zinez Eskualduna!

Dena den lehen ala orai hola goazen beti aintzina guk gure besoez, dela lentegietan ala lur-lanetan Eskual-Herri eder hau artatuz, zuek aldiz zuen izpiritu argituez gure ohidurak eta mintzaira xaharra begiratzuz eta apainduz, denak elgarrekin eskuz-esku eta bakean.

Beti bizi eta azkar egon dadin ESKUARA...

## EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Aiherrako alkate jauna

Jaun-andreak:

Challet Aiherra-ko jaun meraren ongi etorrizko hitz eder-  
rrak entzun ditugu. Hoiak entzun eta, ene eleak, eskerrak  
agertzeakoak, ez bitez zirimonia huts edo usaiazko eleketa  
bezala har. Ezen barne-barnetik eta bihotz-bihotzetik erranak  
nahi ditut.

Bai. Eskerrak zuri, alkate jaun horri, eskerrak Aiherra-ko  
herriari, eskerrak besta eder hau apailatzen hain artoski par-  
te hartu duzuen guztioi. Eskerrak, azkenik, hainbeste tokita-  
rik bilkura huntara bildu zareten guztioi.

Aiherra-n, Nafarroa Behereko herri polit huntan biltzen  
da egun Euskaltzaindia.

Eta zorionean, egun hautan, tenorerik hoberenean hartua  
dut Aita Xabier-ek Beloke-tik igorri didan liburua. Anai  
Rafael Muskarditz-en erranak dakarzkien liburu xarmanta  
(1). Hemengoa, Aiherra-ko semea baitzen Anai Muskarditz  
hori. Aitortzen dut haren liburua ez zaidala bat ere gaizki hel-

---

(1) *Nor da hor?*, Editions Ezkila, Notre Dame de Belloc, Urt, 1975.



du, hemengo euskararen berezitasunak ikasteko, hemengo mintzamoldearen xehetasunei ohartzeko.

Euskaltzaindia izena duen gure batasun hunek Euskal-Herri guztia bere xoko guztiekin agurtu eta ezagutu nahi du, euskaldun guztiak beren mintzairaren amodioan sustatu nahi ditu, euskaldunak euskarari zinez eta finko atxikiak izan daitezen nahi du. Eta nola herri guztiak bana-banaka bisitatzerik ez baitu, egungoa bezalako okasione eta paradez baliatzen da ahal duenaren egiteko.

—oOo—

Segur naiz, anitzek ez dakiela Euskaltzaindiaren berririk, bertze anitzek, berriz, bai. Ez dakitenen faboretan, bada, hitz bi erranen ditut Euskaltzaindia zer den, zertarako den, eta, beraz, egungo bilkura hunek zer erran nahi duen aditzera emanez.

Badu larehun eta gehiago urte Detxepare, Nafarroa Behere huntako euskal poeta handi hark errepikatu zuela: Heuskara, ialgi adi kanpora! Heuskara, ialgi adi plazara! Heuskara, ialgi adi mundura! Heuskara, habil mundu guzira! Heuskara! Heuskara! Heuskara! Heuskara, ialgi adi dantzara! (2).

Badu larehun eta gehiago urte —erran dut— Nafarroa Behereko parte huntan errepika hau entzun zela.

Eta zuek badakizute ontsa nolako segida eta ihardespena izan duen orai artio gure poeta zaharraren deihadarrak. Hala-hulakoa, hitsa, eskasa, tristea. Ez, inola ere, hark amets eta nahi izan zuen bezain bertzekoa.

Mendez-mende hor ibilia da gure euskara untzi pilotu gabeen pare, arrokapean, itsaso eta uhuinpean galdu ordean, umezurtz triste eta jabegabeen egitekoak ibili ohi diren gisa. Hala zioen Sara-ko Etxeberrik XVIII. mende hondarrean (1).

Baina Etxeberrik gauza hoik erranez gero ere, gure euskarak ezagutu duen zorzea ez da arraiagoa izan.

Zer egin, bada, euskara behehitze eta egoitza ilun huntarik ateratzeko? Bada zer pentsa eta zeri lot, zeren guztia beharrean aurkitzen baita gure mintzaira.

(2) BERNAT DECHEPARE, *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545; Edilik ager arazia, Donostia 1968; "Kontrapas", 126 orrialdean.

(1) Joanes Etxeberri Sarakoaren *Lan Hautatuak*; Lur Editorialak ager araziak, 1972; "Eskuararen Ethorkia"; Ikus 115 orrialdea.

Richelieu kardenalak Akademia bat iarri zuen frantsesa errekaikatu, apaindu, landu eta artatzeko. Akademiara deitzen dituzte lan hortarako trebe edo gai diren jaunak, edo modu batera nahiz bertzera frantsesaren alde lan ederrik egin dutenak. Badakigu, gainera, halako ospe eta ohorez inguraturik egon ohi direla batasun horretan sarturik diren jaunak. "Immortels" deitzen dituzte, nahiz eta bertze guztiak bezalaxe hiltzen diren.

Ote zekien Frantziako eta Espainiako Akademien berririk Jose Paulo Ulibarri ferratzaileak, gure herriko gizon xalo hark? Nik ez dakit. Joan den hilabeteko 17an egin du Euskaltzaindiak besta unki garri bat Okendoko herrian, Araban, haren sorlekuan, Ulibarri horren berrehugarren urtea ospatzeko

Jose Paulo Ulibarrik, bada, joan den mendearen hastean, euskararen kinka larria ikusiz, galdatzen zuen Gernikako arbolaren pean, bizkaitarrek beren bilkurak egiten zituzten tokian, hauta zitezela 24 gizon, euskararen arta izan zezaten (2).

Haren oiua ere orduan ez zen entzuna izan.

Bainan emeki-emeki kezka bat, arrangura bat, kontzientzia zoli eta bizi bat indarra hartuaz eta euskaldunen bihotzetan erroak eginez joango da: euskara begiratu behar delako arrangura. Bai. Euskara salbatu behar dela, eta horretarako, eta bertzeak bertze direla, batasun bat, elkarte bat sortu beharra dagoela, Akademia bat. Eta Akademia huni Euskaltzaindia izena jartzen zaio, hau da: Euskara zaintzeko eta begiratzeko, lantzeko, aitzinatzeko eta altxatzeko jarririk dagoen elkarte, batasuna. Hori erran nahi du izen horrek. Euskaltzaindiaren sortze hori 1918an izandu zen. Erranik dago hunekin Euskaltzaindia zer den, noizko den eta bai zertarako den ere: gure mintzaira begiratzeko, lantzeko eta iraun arazitzeko.

Segur da gure batasun hunen ahala ez dela xede guzti hoiak erdiesteko beharko lukeen bezain bertzekoa. Bera bakarrik ez dela horretarako aski gai eta indartsu. Hori bistan da. Horretarako euskaldun guztien laguntasuna eta arrimua

---

(2) Ikus J. P. Ulibarrikoaren *Gutunliburua*. Faksimilezko edizioa, Arabako Diputazioak ager arazia, 1975.



behar du. Bai. Euskaldun guztiek beharko dute huntan elkarrekin ari eta lagundu.

Euskaltzaindiak berrogoi eta hamar eta gehiago urte huntan zer egin duen euskararen egoitza altxatzeko, ezin dut nik hemen puntuz-puntu eta xeheki kontatu. Hauxe bakarrik erranen dut: Ortografa batu duela, euskaldun guztiek izkiriatzeko orduan molde bat, berbera eta berdina erabil dezaten.

Urrats hunek bere egitez ezteusa, gutibaliao eta hutsaren parekoa iduri du, baina luzarora behatuz ez da hala. Hizkuntza biziak, mintzatuak, bere anaia bizkia edo birtxia bezala daduka bertzea, izkiriaterakoan erabili behar dena. Bi anaia horiek elkar laguntzen dute, eta bata bertzearen beharrean da, Mikel Zarate jaunak bere azken liburuko alegi eder batean agertzera eman duen bezala. Are gehiago, bi anaia birtxiok soinkideak dira, siamesak, alegia. Bata bertzeagandik ezin bananduzkoak, bainan halaz ere bakoitzak badu bere nortasuna, bere bisaia eta bai bere legeak ere (1).

Gainera, Euskaltzaindiak emeki-emeki arauak eta argibideak ematen ditu, euskalkiak eta eskualdeetako mintzamolde bereziak errespetatuz, horien gainetik Euskal Herri guztirako euskara molde bat zabala, orokorra eta guztiona egin nahiz, eta euskara hori ikastola edo eskolen bidez heda ahal izan dadin (norbere eskualdekua bat ere gutietsi gabe, jakina).

Sobera ere badakigu ahalegin guztiok alferrekoak gerta daitezkeela, guztiz ere euskarari zabalkunde bideak eta irakasbideak galerazten bazaizkio, bainan gure aldetik bedere tresna prestik eta gerturik egon dadila. Hori nahi dugu.

Eta gure tresna hori asmakizun ergel eta funtsgabeko bat gerta ez dadin, geure zangoak lurrean ongi finkatuak nahi ditugu. Hizkuntza landu guztiek erregela baten beharra dute. Ideal baten, lege baten, mirail baten beharra. Eta horretarako euskararen tradizioa ikertzen dugu, euskararen autore zahar ospetsuak gogoan hartzen ditugu, ez noski horiei estekaturik egoiteko, bainan bai neurri batean gidari, argi emaile eta bide erakusle izan daitezen. Eta hortakotz, hain zuzen, Iparraldeko Euskal-Herria gordailu bat dugu, guretzat guztiz baliosa eta maitagarria dena, zeren hemengoak ziren edo

(1) *Ipui antzeko*, Gero 1975; "Idatz eta Mintz", 25. orrialdean.

hemen lan egin zuten Detxepare, Leizarraga, Axular, Tartas eta beste autore zahar ospetsuetarik askok.

Esan dezadan, azkenik, gure Akademian, bertze Akademieta bezala, badirela hiru "académiciens" mueta edo maila. Lehen mailatakoak, erdaraz "numéraires" deitzen direnak, guk euskaltzain osoak deitzen ditugu. Hoiak 24 dira, eta Euskal-Herriko eskualde guztietarik hartuak dira. Hoietaz gainera badira euskaltzain laguntzaileak eta euskaltzain ohorezkoak, eta hauentzat ez da kontu edo muga jakinik.


Gaur, bada, Emile Larre Aiherra-ko erretore jaunak, Euskaltzaindian sartzea egiten du euskaltzain oso bezala. Horretarako Arautegiak manatzen duen sarrera-hitzaldia irakurriko du. Ondoren, Euskaltzaindiko lehendakari ordeoa den Jean Haritschelhar jaunak ihardespenezko hitzaldia egiten du. Eta azkenik, euskaltzain osoa delako ageri edo sinestamendua emanen zaio Emile Larre jaunari.

Gero, berriz, euskaltzain laguntzaile (erran nahi da "académiciens correspondants") bezala hartuak izan diren hiru jaunei diploma edo hartako sinestamendua emanen zaie. Huna hemen jaun horien izenak: Gexan Alfaro (Lantziri), Ramuntxo Camblong eta Manex Goyhenetche.

Izenak berak aski ongi aditzera ematen duen bezala, Euskaltzaindiak bere lankide eta laguntzaile bezala hartzen ditu jaun hauk, eta nahi du gure batasunaren lanetan zinez eta egiazki parte har dezaten. Hortakotz, jaun horiei ere galdutako nieke, hasteko, lantxo bana gure hileroko bilkuretan irakurtzeko presta dezaten, berek libreki hautatutako gai edo sujeta baten gainean. Hau baita, bertzeak bertze, gure batasunean sarrera egiteko eta gure lanetan parte hartzen hasteko biderik hoberena.

Eta finitzeko, eskerrak ematea beste lanik ez zait gelditzen. Eskerrak, bai, bihotz-bihotzez, guztioi: Aiherra-ko jaun merari, Aiherra-ko herriari, hainbeste zoko eta tokitarik etorritako jaun eta anderei, eta egungo besta eder hau antolatzen parte hartu duten guztioi. Eta zorionak bereziki gure Euskaltzaindian sartzea egiten duten jaunoi.





*Emile Larre jauna bere mintzaldian*



## EMILE LARRE JAUNAREN MINTZALDIA

Jaun andereak eta adixkideak,

Euskalzaindian eskainia zautan tokia jar-alki bat balinbada, nere adixkide guziek badakite ez zela niri eskaini behar; jarririk egoiteko ez da gero nornahi on! Jakintza-bidetan, jarririkako lanek galdatzen dute bakartasun, barnatasun, iraupen eta lan ixil aintz.

Egia erran, batzu barnean ari diren bitartean, beste batzuek ibili behar kanpoan, erain, arta, bil eta jorra, nolazbait ere barneko langile ixilentzat gai-keta, nun ez den heien barne-lanen hedatzaile ta ezagutarazle.

Halere, nola niri Euskalzaindian Lafon zenaren alkia baitzait emana, nago geroztik mila gogoeta, nundik eta nolaz egin ahal izan duten Euskalzaindiko jaun ohoragarriek Lafon jaunetik eta nitarako erorikoa. Hura, "Ecole normale supérieure" delakoan hasirik, geroago filosofiako agregazionea irabazia eta jakintza horren erakasle, Platon famatuarekin etxekotua, Platonen filosofia hobeki jakitzea-gatik, haren mintzairari ikerka lotu-ta, grekotik Caucase-ko mintzairerarat, eta Caucase-koetarik euskara-dino heldua, hoik denak bide-nabar errotik ikasten zituela...

Ni aldiz, erraiteko maneran, amaren altzoan ikasi mintzaira xoilaz aberats, eta hartaz bakar bakarrik egun guziz bizi eta bere izaiteaz egia hunen erakusterat ari: bere amamintzairarekin bizi hau oso-osea ereman dezakeela, batere zaharkeriarik gabe, oraiko munduaren erdian, zinez oraikoa den euskaldunak. Eman dezagun hortan dela, jarririk egoiten ez dakien baten indarra.

Alabainan, bien beharra ez ote du euskarak? Buruz eta liburuz eta jarririk batzu, mihiz eta berriketaz eta ibiliz besteak. Gisa guziz batzuek ala bestek elgar hatxemaiten dute bi jende mota horiek, egun ez bada bihar: Lafon Larrañeko gainetarat ereman zuen euskararen ikertzeak, ni aldiz nere haurrean Iparla ta Larlako ur gabietan edaten ari nintzan garai berean. Fruituak ez ditugula berdinak?... Bainan ez dea asko fruitu motaz egina euskal baratzea? Dena den, gu biak gure bide ez-berdinen gatik iturri berean hazi gaituen ur bizia, ez ote da bizigailu bera?

Hortan utziko dugu, gutiz barka, Lafon jaunari egun zor nion agurra. Hemen begira zagozkidaten Aiherrako herrita-

rrak, nor harri zuentzat balinbaditut nik gehienik egungo erran beharrak. Zueri aste guziz mintzo naizana, ez uste izan beste prediku baten hastera noanik. Edo izaitekotz, egia hau dautzuet zueri zor: ez naizela ni zuentzat bi gizon. Nihauri behatzea aski, badakizue ez dutala batendako ere soberakini.

Beraz ene euskalzale saila eta ene apez-saila ez dira bi bide, bakoitza bere alderat ari eta noiztenka kurutzatuz loazkenak, bainan bide ta sail bakar bat. Zuek ez zirezte gizon eta euskaldun, emazte ta euskaldun, bainan xoilki gizon eta emazte euskaldunak, euskaldunki gizon eta euskaldunki emazte. Goazen beraz ez naizela ni apez eta euskalzale, bainan xoilki euskaldun apez bat. Gehiago ere diot: ni Aiherran ez nintazkela izaiten ahal zinez zuen apeza, zinez euskaldun izan gabe.

Euskalzale izaitea, aldiz, bereziki euskalzain izaitea, hori oraino beste mail bat balinbada, diotzuet hemen garbiki ez nintzala ni nehoiz mail hortarat iganen, aihertarrak, zuek gabe. Herri hau ez balitz orai den bezalako herri euskalduna, ez zen egungo egun hau izanen. Gehiago diot oraino: ez nintzala ni sekulan euskalzain izanen. Lafon izan zaiteken euskalzain bere liburuekin, bere iker-lanekin. Ni berriz naiz euskalzaindiratu zuekidan, Aiherrako herritarrak, zuek baitzirezte egun guziz, zuekin biziz, nik, irakurtzen dutan liburu ederra.

Hemen ditugu ere egun HERRIA astekariaren berriketariak. Ez hemen zareztelakotz (funtsean hemen zarezten entzule gutiz gehienak HERRIA-ren irakurle bederen zaituztegu), bainan hala delakotz egiazki, egiani bere bidea zor zaio: gure astekari maitearen bidez eta hoinbeste arartekori esker, Euskal-Herri guzia dela (nork uka?) nere egun guzitako liburu haundia.

Aiherra eta HERRIA kaseta, horra beraz jarririk ezin egona duen hunen bi liburuak.

—oOo—

Aiherrako lurra nolakoa den erakutsi dauku, bizi-bizia, joan den astea bezain berri, Iratzeder euskalzain Abadeak Beloken atera daukun liburu batek: "Nor da hor?" du izena: anai Rafael Muscarditz, Belokeko atezaina, Salaberriko-bordan sortuaren letrak eta bizia. Hortxe baita liburu, nahi duenarendako, dena otoitz-bizi eta dena Aiherra dariola, goazen gu beraz aitzina.



Ez da harritzeko Aiherra holako euskal lurra balinbada. Ez du oraikoa. Balitake ainitz erraiteko, urrunago joan gabe, herri hunek ehun edo berrehun urte huntan bere sabelean sortu eta hazi dituen euskal landare ederrez, beti kasik hola-ko landareak auzoan loratu eta fruitutu balinbadira ere. Auzoak, eta auzo desbardinak, hurbil baititu Aiherrak, ala hortan da ote gure lurraren indarra eta hemengo airearen bizia? Ez direa hemendik zenbait harri-besagainen bidean, Lapurdi batetik eta Kaskoia bestetik?

Lehenik hartuko dut herri huntan berean, egun denen beharra baitut, *patroin* bat, beraz hau bigarrena Lafon jauna-ekin. Aiherrako historian hatxemaiten dutan patroin hori Aiherrako ertora ni bezala, duela 200 urte ez-baian: *Bernard Larreguy apez*, 1721-an sortua zen, Donibane Lohizunen. Urte hartan berean zen Henri Xavier François de Belzunce, Marzellako apezpikua, harrigarriki bere girixtinoentzat bermatu, Marzellan 50.000 hil egin zituen peste-izurritean.

Bernard Larreguy apezak hain xuxen belzunztarra zuen ama, Maria Haraneder, eta naski belzunztarrek zuten apez hori hunara tiratu, Uztaritzen eta Basusarrin jada ertor egon ondoan. Bainan 10 urte hemen egonik ihesari eman behar ukan zuen 1793-an, Frantses Dardan Ixturitzekoak bere odola ixuri-ta egun guti barne, Frantziako iraultza edo erreboluzione haundian Bidasoz haindiriat joanik, libroki apez egoiteko eta ez zen gehiago itzuli.

Nere patrointzat har dezaket apez hori, ez bakarrik Aiherrako ertor bezala, bainan ere euskal girixtino idazle bezala. Gu, zenbait lagun, Beloken ari giren bezala eta 200 urte lehenagotik, lotua zen hura Bibleari. Royaumeont-eko Biblea euskaratua zuen, ez hitzez hitz bainan bere apaindura emanez: "Testament zaharreko eta berriko historia" lan ederra.

Eta azkenik ez zena euskal kantika-egile bikaiña! Dena den, huna zer zion hartaz Saint Martin apezak 1775-ko otsailaren 28-an, beraz duela 200 urte xuxen: "Behin ere ez dire ahanztiko jaun harek eman dituen kantiko gozo eta xarmagarriak; bihotza baderamate Jainkoaren maitatzerat."

Bernard Larreguy apezaren suertea: Aiherrako aro eta giroan aurkitu dela hamar urtez. Bainan ez dezazuen uste izan herri huntan ontsa emaiten dutela bakarrik auzotik eto-

rri landarek, goazen orai ikus nolakoak diren izan beste herrietan lur huntako ume batzu.

—oOo—

1887-an zen: ez du beraz ehun urterik. Huna Donibane-Ziburuko itsashegi hortan bi aihertar, bat Bordako seme, beste Poxolukoa bere Aita Salvat-en aldetik: lehena apeza, beste gizon ezkondua, biak langile porrokatuak, biak euskal su berak sustatuak.

*Arnaud Pochelou*-k zuen aita Poxolukoa. Paperek diote Poxolia ostatu zela orduan (nork uka orai ere ostatu bat har lirola herri-hegal horrek, Aiherratik eta Ixturitzera biderdi!). Donibane Lohizunen, herriko-etxean grefier edo segetario, 22 urte zituen 1887-an, noiz-eta ere ESKUALDUNA astekaria (bai, oraiko HERRIA hunen lehen izena duzue hori!) sortu baitzuen Louis Etcheverry donazahartar deputatuak. Lafitte jaun kalonjeak ni hatxeman ninduen bezala duela sei urte, Louis Etcheverry-k Arnaud Pochelou aurkitu zuen kasetarentzat lehenbiziko zuzendari edo egile-nausi. Arnaud Pochelou, ez ote zaitut beraz zu, Lafon eta Larreguy-rekin, nere hirugarren patroina!

Nik Aiherratik bezala, Arnaud Pochelouk gisa berean aste guziz egin behar zuen Baionarako bidea, asteko errealdiaren ateratzeko, hark berriz Donibaneko grefiergoa eginez, eta ez autoan, bainan treina hartuz, eta ez ere bi jauziz bainan erdixingila, edo bederen mainguka, ezen zango motza zen gizon balios hori. Artetik erraiteko, han ditu Donibanen bizi, Arnaud zenak, hiru alaba, Pochelou andereak eta, duela zenbait urte bakar, ibili ere gira euskal eta beste aldizkari erosten, andere hek Gambetta karrikan zaukaten liburutegian.

—oOo—

*Pierre Haristoy* zen hemengo bigarren baxenabartarra denbora hartan itsas-hegian: Bordako apeza, hortxe berean, Baxenabarreko hegi xorrotxeri ala Hazparne aldeko mamola legundueri, goizeko argi zirrintan bezala aratseko iguzki begi-apalduan, aroaren irriño guzier ala haize zirimoler edo erauntsi beltzer berdin berdina, maxela batean ontsa lotua



dagoen Borda etxaldean 1833-an sortua. Gure eliza sartzean ezker, hil-hobi harri eder batean dauzkatzue betikotz zizelatuak apez horren lan baliosenak.

“Les paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire” bi liburu eder badauzkatzue, denboraren buruan, Baxenabarre ta Lapurdiko herriez zer irakats baitaukate batere dudarik gabe.

Ez zen hortan gelditu apez horren lana: ainitz etxetan aurki ditake “Ebanjelio Saindua”, Duvoisin kapitainak euskara-lat itzulirik apez horrek argitaratua. Zer ezdu bestalde historiazale horrek ikertu eta gure tokiaz errebixtetan erdaraz idatzi! Arkeologia jakintzan beti lehena zen bere ixtudio denborakotz, erran nahi baita gustu berezi bat bazuela bildua eliza-etxe, bizitegi eta arkitektura zaharren konprenitzeko, maitatzeko eta errespeturekin antolatzeke: holaxet egin edo kontseilatu izan ditu bere denboran Aiherrako, Beskoitzeko eta Ziburuko elizetan orduan egin izan diren berri-tzeak eta aldatzeak, Zalgizen eta Irisarrin aldiz apez-etxe ta seror-etxeak egiten zituela. Ezen herri horietan denetan izan da ertor Pierre Haristoy apezta, Aiherra-Bordako semea.

Bainan, solas hau bururatu aintzin erraiteko, zein behar-rak ginuzken, orain orduan bezenbat, Haristoy bezalako apez eta laiko argituak, gure euskal elizek eta etxe zaharrek gal ez detzazten beren ederra eta beren arima!

Beharko ginuen zerbait erran Haristoy-en eskolatzeaz, nola Hazparden Garat-Pikasarri eta Deyheralde apezak gidari, eta hauk behe-retik ekar-arazi lehen hiru fraide erakaslee-kin, estreinatu dituen horko San Josep ikas-etxearen lehen urteak. Ehun bat haurrekin hasi ziren, hazpandar, lekuindar, lekondar, ixturiztar eta aihertar, eta Bordako Pierra hetarik zen.

Pierra mutiko segura eta goizik gizondua zelakotz, haren gain uzten zuten beharrez eskolierren multxo guzia, bai aste-ko ateraldiarentzat, bai mezarat joaiteko, bai-eta erakasleak ezinbertzez huts egitea gertatu ikasaldi batzue-dako ere.

Ez da beraz harritzekorik, bere jakintza lanez bestalde, apez hori izan baita beti funts eta segida haundikoa, ezen ez omen ziren orduan ere patar guziak ordoki: besteak, beste, ba omen ziren Beskoitzen hameka ezkontza elizaz kanpokoak, Haristoy haratzean. Eta Zalgizen, xuberotar herri ederrean,



bazuen "apez trixte" bat, familietan kalte haundienak egiten ziozkana... eta balioko zuen, denbora izanez, kasu horietan ere gure Haristoy apez onaren urratsen kondatzeak...

Bainan baditugu beste bi aihertar balios, laburzki bederen aipatzekoak.

—oOo—

*Simon Etienne Durruty*. Espertateiko semea zela badakite oraino herritarrek. Espertatea Ixuribehere-berria zela orduan deitzen, gutiagok dakite: han sortu zen Ximun 1853-an. Aita, herriko axuanta, ama Kattalin Harriague, amatxi Janamari Belzunce, bera ertor egona Lukuzen, Domintxinen, Itsasun eta Lekornen: herri huntan hil zen 1915-an bezpera denboran tupustez eta bada gutartean hura erortzen ikusi duena.

Euskal apezetan lehena izan da naski literaturako lizentzia baten jabe egina, bainan haren euskal lanek dute guretzat balio haundiena. Durruty-ren "Elizako liburu ttipia" badukezue ainitzek zuen etxean, kurutzearen bide eder batekin besteak beste. Lehena 1897-an agertua, Lafitte jaunak berriz bietan atera izan du, emendaturik eta gero arindurik, bai-eta Mgr. Oyhenart-ek, xuberotarturik.

—oOo—

Aihertar maiteak, galdatzen badautzuet nik nun den zuen lurrean Kitolisteia, erranen dautazue zenbaitek menturaz: "Zer zira, ala gutaz trufatzen?" Ez eiki! Duela ehun eta guti urte, Kitolisteia bazen Aiherran, bai-eta familia ederra ere han sortua bataioko errexixtroen arabera, Heguy familia. Hatxeman dugu nun zen etxe hori: orai Artxidukeneko barrukia dagon tokian zela, ezen Artxidukenea ere badu herri hunek Belzuntzeko bizkondearen jauregitik oihu baten bidean: gutiz barka, jaun andereak!

"Hargindeiko apeza" erraiten dute halere *Julien Heguy* ezagutu dutenek: hura sortu-ta laster utzi zuketan Kitolisteia haren etxeko ofizioz ilaginek, Julien apeza Hargindeian altxatua izan denaz geroz.

Julien Heguy apeza 1860-an sortua zen, 25 urtetan apez-tua, lehenik Santa-Graziko bikario Xuberon, gero Ainhoako

eta azkenik Uztaritzeko. Ertorgoko aprendizgoak ere berriz Santa Grazian egin zituen, bikarigokoak bezala; 1903-an Beskoitzerat etorri 21 urterentzat errot eta azkenik berriz Xuberrorot, Arrokiagarat itzuli, han 1930-an hiltzeko. Izan ditu bere nekeak eta kurutzeak, laidoak eta nahigabeak...

Halere gutarik bakoitzaren zauriak gurekin joaiten dira. Lanak aldiz gelditzen: liturgizalea zen, diosesaren astekariarentzat usu idazten, hori erdaraz egia erran, baina euskaraz ere predikari ederra, bere talendu ta karraren gatik Euskal-Herriko eliza gehienetan entzun baitute.

Luma ona zuen, Almanaka-ren idazle, irri-solas eta beste. Liburutto bat bada harek egin, oraino ez aspaldi Urruñako elizan eta beste batzuetan irakurriz baliatzen ginuena: "Maiatza edo Mariaren ilabetea". Azkue ta Gavel jaunak Heguyz behartu dira eta ez da harritzeko Euskalzaindiak bere laguntzaile hartua baitzuen.

Bainan ez nuke nahi euskalzain ala euskalzale guzier egun egin ditaken beste laguntza balios bat nik hemen ahan-tzi: erraitekoak erranez geroz ixiltzea bazter guziak elez ase gabe, eta Haritschelhar nere herritar euskalzainari lekua uztea. Engoitik, konprenitzekotz, bakoitzak konprenitua duke: Aiherra dela egun huntan Euskalzaindian sartzen, eta nik bezenbat bederen merezitua duela.

## **EUSKALTZAINDIKO LANKIDE MAITEAK,**

*Jean Haritschelhar*

Jaun andereak,

Egun bezalako biltzar batek sortzen derauzkit bihotzean bi sendimendu desberdin: lehenak uzten daut gustu kirets bat, heriotza agertzen baitzait eta bereziki euskaltzain zenuaren itxura gogoratzen, ongi baino hobeki ezagutu baitut Lafon jauna; bigarren sendimenduak aldiz zorionez betetzen nau euskaltzain baten ondotik agertzen baita beste euskaltzain bat eta zu izan zarelakotz hautatua ene adixkide eta herritar maitea.



Bi aldiz alegeratzen nau zure sartze hunek eta huna zertako: Aiherran egiten baita, Aihertarren artean. Bozkariatu naiz Challet jaun auzapezak on hartu zuelarik ideia hori, konprenitu baitzuen berehala Aiherra eta Aihertarren eginbide zela beren artzainaren ohoratzea egun xoragarri batean.

Huna beraz Aihertarrak hor, gizon eta emazte, zahar eta gazte, huna beraz Aiherra bildua eta berehala nahi deiet eskerrak bihurtu, bai Aihertarrer eta bai Aiherrari. Mintzatu zirelarik oixtion jaun auzapeza, senditu dut zoin barnaki egiten zinaukun ongi etorria. Herriaren izenean egin duzu eta nik ere orai Aita Villasanteren ondotik eskerrak bihurtzen derauzkitzut bihotz bihotzetik. Bainan Aiherran izanki eta, nola ez aipa Aiherra eta Baigorri-ren arteko lokarriak? Zuen artzainak emaiten daut egun okasionea. Egund berezi hau ez dea denbora berean Baigorriarrek ohoratzen duten eguna? Mezan mintzatzailea bikarrio jenerala, Baigorriarra, euskaltzain berria Aiherrako erretor bainan Baigorriarra sortzez, ni orai mintzo eta Baigorriarra ere naski. Beraz, Baigorri hor dago beste Nafarroa Behereko herri baten bestakari, herri horren goresteko eta anaien arteko besarkadaren emaiteko. Badu denbora Aiherrak eta Baigorrik badituztela har emanak. Eta ez niro nere eginbidea bete ahanzten banu Aihertar eta Baigorriar guziek ezagutu dugun apez bat.

Badu aspaldi; gu biak ttipiak ginen Emile Larre adixkidea, eta bizpa hiru urte goiti beheiti ibili gira katiximan bikario berarekin. "Bihotx" deitzen zuten. Ez nakien orduan zendako. Izen goitia bezalako zerbaite naukan izen hori eta ene haur gogoan pentsatzen nuen zinez ederki asmatua zela hain zen ezitia, hain zen ona "Bihotx" apeza. Geroxago jakin nuen Ahazparne Bihotxeneko semea zela, bainan frogak ukanikan ere nago beti ene haurreko pentsakeran: sekulan apez batek merezitu balinbazuen izen goiti bat Lagrenade apeza zela eta "Bihotx" zela ongi zoakon eta doakon izena.

Orhoitzapen bat lehenik zor diogu bere alki hutsik utzi duen euskaltzain zenduari. Ez zen René Lafon euskalduna sortzez. Bordeleko inguruetan jaio zen, Mérignac deitu hirian, 1899 ko agorrilaren 4 ean. Ikasle suharra, segitu zituen bere eskolak Bordelen eta hamazazpi urte egin gabe sartu zen *Ecole Normale Supérieure* delako Pariseko eskola nagusi hartan. Filosofiako estudioak egin zituen, 14 eko gerlaren azken

gudukak ere hemeretzi urte zituela eta gerlatik jin-eta irabazi zuen *agrégé de philosophie* deitu titulu ederra.

1921 ean hasten du bere erakasle bizitza. Ez da René Lafon jaunak filosofian hunkitu dituen lehenbiziko ikerketak. Ez gaiten estona beraz linguistikarat jo bazuen Vendryes orduko jakintsun handia solastatu-eta: Kaukaseko mintzairak lehenik eta Vendryes-en kontseilua segituz euskara, segur zelakotz Vendryes euskara zela Kaukaseko mintzairaren ahaide. gaiten estona beraz linguistikarat jo bazuen Vendryes orduko jakintsun handia solastatu-eta: Kaukaseko mintzairak lehenik eta Vendryes-en kontseilua segituz euskara, segur zelakotz Vendryes euskara zela Kaukaseko mintzairaren ahaide.

Hamar urtez, 1926 etik, 1936 artio, pasatu ditu René Lafon-ek bere bakantza guziak Larrainen "üskara" ikasten zuela. Berak erraiten zuen "Ziberotarrak bai goguan, bai bihotzian haitüzko lekhia, amodiozko xokhua edükitzen ziala". Eta segitzen zuen: "Mintzaje hau lekhian berian, bereziki Larrañen, herriko jenten ahoti, sükhaltian, ostatian, elizan, arrabotian, bidian, alhorretan, olhetan ikhasi dü. Eta orai Ziberuaz mintzo nizalarik, Larrañeko, Altzaiko, Atharratzeko adixkideen begitartiak bai hilen bai bizienak agertzen zaizt ene begietarat eta üdüritzen zait haien botzak entzüten tüdala."

Zer atxikimendua berak hautatu zuen mintzairari! Eta segur ez dut urrikirik, duela orai hamabi urte, nere sarrerako mintzaldia egin nuelarik eta hura naukalarik aitatxi gisa erraiten niolarik: "Enetako zira erakasle baino gehiago etsenplu eder eta bihotz altxagarria. Ez enetako bakarrik, bainan denendako ere bai. Euskal Herritik urrun sortua, Pauen zinelarik hartu zinuen euskararen ikasteko xedea. Euskara ikasiz, emaiten deiezu deneri ikusterat ez dela euskara ezin ikasizko hizkuntza; erakusten daukuzu, Jauna, egin dituzun lan balioekin, ederrenetarik bat dela mintzaira hori, maitatu eta maitate baituzu behar bada Éuskaldunek baino gehiago.

Euskaldunek ukan dute sortzez, beren amen bularretan xurgatu dute; zuk aldiz, hautatu duzu, adixkideak hautatzen diren bezala, eta hautatzearekin amodioz maitatu. Euskara ikasiz, euskaradun egin zira, erran nahi baita euskaldun bilakatu."



Hamabi urte pasatu dira eta ez dut hitz horietan hitz bat ere aldatu nahi. Bakarrik nahi nuzke, egun, orduan egiten niozkan laudorioak emendatu. Euskararen ikastea lan ttipia harentzat. Ez zen lana, aldiz zoriona. Gutik hain barnatik ikertu dute gure mintzaira maitea, nola egina zen, XVI garren mendeko hizkuntza aztertuz bere aditzaren sistiman. Hor dira lekuko haren liburu eta artikuluak: *Le système du verbe basque au XVI e siècle* eta Donostiako "*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*" agertu dituen lanak Detxepare eta Oihenarten obreri buruz. Lafon-i esker ezagutzen dugu orai lehen baino hobeki gure XVI garren mendeko euskara bere euskalkietan. Gramatikari buruz egin dituen ikerketak ez ditaizke konda ainhitz aldizkarietan agertu baitira bereziki "*Bulletin de la Société de linguistique de Paris*"-ean. Haren bibliografia osoa bildu dut eta agertaraziko "*Bulletin du Musée Basque*" delakoan. Bibliografia horrekin euskaltzale eta euskal ikertzale guziek ikusiko dute zer langile porrokatua izan den René Lafon bere bizi guzian.

Baitzakien georgianoa eta euskara, bien arteko lokarriak bilatu ditu, zabalduz beste jakintsunek urratu zituzten bideak. Salamankan agertu dira "*Etudes basques et caucasi-ques*". Erran gabe doa ez direla denak ados Lafonekin bainan ez zuen hunek sekulan aterik hesten, edozoin borta idekitzen ordea, ibero hizkuntza eta Akitanoen mintzaira aztertuz harri zahar idazkietan. Beti pentsatu du ikerle bakotxak behar zuela bere lana egin erranez zertarat zoan arrabots gutirekin, jakinez ikertzeak ez duela azkenik, besteak etorriko direla gero, asmatu diren gauzen desegiteko edo asmo horietan finkatuz aintzinago joaiteko gizonaren jakitatean.

Iduri zuen azken urte hauetan nahi zituela bildu euskarari buruz zazkienak eta besteeri presentatu. Ingelesez agertu zen lehenik lan hori eta igorri zautalarik konprenitu nuen berehala bazuela balio haundi bat. Galdegin nion hea ez zitaien frantsesez publika eta zonbeit baimen ukan eta agertarazi nuen *Bulletin du Musée Basque* deitu aldizkarian. Irakurtu zuelarik lan eder hori Lafitte jaun kalonjeak erran zautan "testamentu" baten itxura zuela; Egia erran bere azken lanetarik bat da, egiazko "ordenia".

Jakintsunaren merezimenduak mundu guzian ezagutuak ziren. Doktorago titulua irabazi ondoan Bordaleko unibersitatean erakatsi du hogoi eta bat urte.



Euskaltzaindian sartu zen 1953 an, euskaltzain oso gisa; 1965 ean *Académie des Inscriptions et belles lettres* deituta-koan hautatu zuten laguntzaile gisa. 1967-an "*Société de linguistique de Paris*" delakoaren buruzagia izendatua izan zen eta Tbilissi, Georgiako hiri nagusiko unibersitateko "*docteur honoris causa*" eraikia, georgianoz egin zuela hango mintzaldia.

Jakintsun haundia beraz eta denbora berean gizona, gizon osoa. Ez zen segur arrabots egiletarik. Ixil ixila bere xokoan zagon bainan mintzatu behar zuelarik ez zuen sekulan hutsegiten. Gizon lañoa eta umila. Bere bizi guzian ez duke gauza haundirik erran besteen kontra. Nik segurik ez dut entzun. Laguntzaren eskaintzeko bazuen beti astia, hain zen zuzena, hain zen ona. Ez zakien ezaren erraiten eta hor nago lekuko. Segitu ditu ene ikermenak hamabi urtez. Orhoituko niz beti nola 1956 an egin niolarik lehen bisita, erran zautala ene zerbitzuko zela. Hitza hitz dio erran zahar batek. Bazakien René Lafon-ek zer zen hitza hitz. Zerbait griña nuelarik ene lanetan aski nion idaztea edo telefonaz deitzea eta berehala emaiten zautan kontseilu edo ahal balinbazuen erantzun bat. Eta haren tokia hartu baitut Bordaleko unibersitatean, ene ganat heldu delarik ikasle edo ikerle bat, René Lafon-en itxura agertzen zait, ikusten dut haren begitarte arraia eta haren boz eztia entzuten. Etsenplu eder bat daukat aintzinean René Lafon-ekin. Bizian bezala hilik ere nere gidari. Nola ez segi?

—oOo—

Galdera bat egin daukuzu herritar adixkidea. Nundik eta nolaz egin ahal dugun Lafon jaunetik eta zutarako erorikoa. Ez dautzut arraposturik emanen. Badakit zer erantzunen zautun René Lafon-ek berak. Erranen zautun ez zuela harek guk dugun xantza ukan, ikasiz gure mintzaira amaren altzoan. Zion berak hartzen zuela edozoin euskaldun erakasle gisa, euskaldunek dutela ez beharbada liburuek emanikako jakitatea, baina beste kultura bat, herri kultura, balio haundiko jakitatea arbasoen ganik etorria, ait'amek hedatzen dutena haurrak altxatzen dituztelarik: erran zaharrak, bizitzeko manera berezi bat, hitz batez euskaldungoa.

Zuk, beste hanitzek bezala hartu duzu urrundik jinikako kultura hori. Sortu zira Baigorriin 1926 eko urtarrilaren 3 an

Iparla eta Larla mendien arteko Bastida Belarrea deitzen den laborari etxean. Ukan dute merezimendu zure ait'amek, zazpi haurride izan baitzizte, horietarik hiru bizi oraino, gehiena etxean zortzi haurren aita, bertze bat Baionan bainan etxea eginik Baigorri eta zu. Hameka urte artio ibili zira Urdozeko eskolan. Gero sartu zira Uztaritzeko seminario ttipian, bigarren maileko estudioen segitzeko eta urte bat pasatu zinuen Maulen erakasle gisa gazteegi zinela kotz omen seminario haundian sartzeko. Han sarturik apeztu zinen 1951 ean 25 urtetan.

Ahazparnerat bikario bi urte igortzen zituzte, gero Donibane Garazirat, gero Maiorga deitu laborantzako eskolaren idekitzeko. Bainan ez baitzira jarririk dagoen gizona huna nun ziren Urruñan eta han sei urte pasaturik Ahazparnen berriz misionesten etxean. Erraiten ahal de kurritu duzula Frantziako Euskal Herria iparretik hegorat eta iguzki aldetik itsaso alderat, jendea ezagutuz misione denboretan, "berri ona" hedatuz eginbide duzun bezala. 1969 an izendatua zira Aiherrako erretor eta geroztik hemen bizi.

Diozu zuhaurek xoilki zirela euskaldun apez bat. Badea titulu ederragorik nun ez den euskaldun gizon eta emazte. Bainan bi hitz horiek euskaldun eta apez-ek beren eginbideak dauzkate. Ez dauzkitzut erranen apezaren eginbideak bainan diot goraki euskaldun ahula dela euskaltzalea ez dena. Apez euskaltzalearen frogak nasaiki emaiten dituzu. Aski zen entzutea goizeko meza xoragarria, fama haundiko meza Frantzia guzian hedatua izan den meza telebixtaren bitartez. Zendako bada, erradazue, hautatu zuten telebixtako gizonek Aiherrako meza? Senditu baitzuten Aiherrako elizan Aihertarren eta Aiherrako erretoraren egiazko euskaldun arima.

Hemen elizkizunak euskaraz, katixima euskaraz frantse-serat lerratu gabe, herri bat oso euskalduna, artzain euskaldun eta euskaltzale batekin. Hortakotz dugu egun ikusten herri osoa bildua bere artzainaren ohoratzeke. Har dezatela Euskal Herriko apezek zutan etsenplu, izan dadila Baionako eliza gero eta euskaldunagoa, eginbide baitu tokiko eliza izaita bere berezitasunarekin erran nahi baitut bere mintzaira berezia lagunduz, azkartuz eta osoki finkatuz. Berrikitan Bre-tainiako itzulia egin dut eta hango elizetan ikusi ditut Bretoin sainduen itxurak beren tokietan ederki jarririk eta denbora



berean nindagon pentsatuz: nun ote gure elizetan euskaldun sailduak ohoraturik? Nun Iñigo, Gipuzkoako patroin saildua? Ez zuena bihotza aski zabala ohoratua izaiteko hemengo elizetan Nun ere Pantxoa Xabier? Konda ditaizke haren itxurak esku baten erhiekin. Nun ere azkena, Ibarreko semea San Mixel Garikoitz? Aldiz aurkituko dituzue Jeanne d'Arc-en itxurak, gurea balitz bezala, dakigularik bizi zen denboran Lapurtarrak ongi akomeatzen zirela Angelesekin eta gu Baxenabartarrak bizi ginela Nafarroako erresuman. Horiek hola erraiteko nahi balinbadute oraikotu euskaldun elizek behar dutela gero eta gehiago euskaldundu.

Zure euskaltzaletasunaren erakuspeideak ageri dira ere liturgia lanetan bildu zireztelarik Beloken Aita Diharce-ekin zombait apez, heietan aipatu nahi baintuzke Andiazabal, Xarriton, Hiriart Urruty, Etxebarne, Olhagaray, Mixel Idiart, Indart, Guillaume eta Grégoire Eppherre eta barka dezatela, otoi, aipatu ez dituztanak. Hasi zinezten 1964 ean! Zer lan miresgarria orduz geroz!

Aipa dezagun ere kasetarritza. Idazten zinuen "*Gazte*" deitu aldizkarian Algeriako gerla garaian eta dakidanaz *Sokorri* zen orduan zure izen ordea. Behar duta erran zure artikuluak xeheki irakurtu dituela Manu La Sotak eta ederki baliatu bere hiztegiarentzat? Eta hor da ere lekuko *Herria* gure astekari maitea. Badu orai sei urte zure eskuetan dagoe-la eta denek badakite zer lanak erabiltzen dituzun astero. Zer zoriona zuretzat ikustea *Herriaren* berriketariak hor direla egun, zure gatik bilduak, zurekin gogoz eta bihotzez, zure egungo ospatzea *Herria* kasetaren besta baita zure bitartez. Zure kasetalari lana ez dea egiazko euskaltzaletasuna?

Bizpahiru etsenplu hartuz nahi nuke erakutsi zer xede eta helburuak deramazkitzun. *Herria* astekaria dela diozu, eta beraz "gertakarier emaiten duen behakoa dela bere heinean *astiz* eta *itzuli osoa* eginez eman nahi den soa"; astekari girixtinoa dela bainan" euskaldun guzientzat mintzo, nehoi deus kondurik galdegin gabe, bakotxaren errespetu osoan"; astekari euskalduna oroz gainetik eta diozu: "Guretzat euskaldun izaitea ez da euskaldungoaz beti ahobeteka errepikan artzea bainan euskaraz xoil xoil, osoki bizitzen ahal dela erakustea eta halaxe egiten bakotxa laguntzea, denbora berean, alegia deusez, xorta xorta, gure euskaltasunaren amodio kartsu eta

bizi baten pizterat ariz bihotzetan." Eta berriketarier hedatu duzun azken paperean hautatzen dut zatiño bat euskara batuari buruz: "Behar dugula, emeki emeki, zazpi probintzietan berdintsu mintzatzerat ez bada, izkiriaterat ari."

Batasunaren alde zirelakoan Euskaltzaindiaren xedeak betetzen ditutzu, Euskaltzaindia baita gure zazpi probintzietan batasunereko bidean doan egiazko batasuna. Hanitz euskalki bainan hizkuntza literario bat denentzat konpreni errexa, huna zer nahi luken eraiki Euskaltzaindiak, ber denboran egiten dituela ikerketak euskaltzain oso eta laguntzaileekin. Horri buruz behar ditu langile kartsu eta azkarrak. Zure merezimenduak ikusirik pentsatu dute euskaltzainek euskararen zaintzeko eta bultzatzeko gai zinela.

Eta mintzaldi hunen bururatzeko, orroituz biak Baigorriarrak girela eta egun erabiltzen dudan *zu* hori ez dugula sekulan gure artean erabiltzen, erranen dauiat: Adixkide maitea, haugi gutarterat; Euskaltzaindiaren izenean egiten dauiat ongi etorri on bat. Hi bezalako langile baten beharra badiagu. Orai artio hintzan, apez, euskaldun eta euskaltzale, hemendik goiti izanen hiz apez, euskaldun, euskaltzale, eta euskaltzain.